



Kutxa didaktikoa Jaiak eta tradizioak

Jaiak eta tradizioak izeneko kutxak gure tradizioetan indarrean dauden jai-garaiei dagozkien objektuak biltzen ditu, kultura-ondare immaterialaren parte direlarik.

Ttuntturroa

Lumekin errematatutako eta koloretako zintekin apaindutako kono-formako txanoa. Ituren eta Zubietako inauterietako pertsonaiak diren Joaldunek eramaten dute.





Azpantarrak

Alboetan botoiak dituzten feltro beltzezko azpantarrak, *Maskarada* batzuen jantzi tradizionaletan erabiliak, esaterako, Zuberoako Inauterietako jantzietan.

Kono formako txanoa

Emakumeek Erdi Aroan eta gaur egun «Mari Domingik» janzten duen oihal zuri biribilkatutako kono-formako txanoa. «Mari Domingi» euskal pertsonaia fantastikoa da, askotan «Olentzerorekin» batera Eguberrietan opariak banatzen ditu.



Txirula

Ezpel-zurezko hiru zuloko txirula, mihi metalikoarekin. Txistuaren familiako instrumentuen artean soinurik altuena duena da (silbotea, txistua eta txirula). Nafarroako iparraldean ttunttun edo salterioarekin batera jotzen da, hau da, 6 hariko danborrarekin.

Gerrikoa eta txapela

- Gerrikoa. Gizonezkoen janzkia, zeinak gerriaren inguruan jarrita, prakei eusteko eta sabelaldea hernietatik babesteko balio duen.

- Txapela. Janzkera tradizionalen tipikoa den gizonezkoen artilezko txanoa. Norbaiten aurrean txapela kentzea, honekiko errespetuaren erakusgarri da (esaterako, Aurreku dantzaren amaieran).



Abarka

Orkatilaren inguruan lokarren bidez lotutako larruzko artisau-oinetako unisexak. Artilezko galtzerdi lodiekin erabiltzen ziren. Gaur egun, jaietako jantzi gisara erabiltzen da soilik.

Ardo-zahatoa

Ardoa freskoa garraiatu, biltegitatu eta mantentzeko balio duen harizko ahokadun larruzko ontzia. Jaietan edaria partekatzeko erabiltzen den objektua da, baita apustuak egiteko ere.





Likore-botila koilaratxoarekin

Beirazko botila testuraduna perkusio-tresna gisa erabiltzeko aukera ematen duena. Gainera, likorearen ontzia (Patxaran) ere bada. Botilaren gainazala koilaratxoarekin igurtziz, jaietako bazkarien bazkalondoa girotzen duten kantuekin batera jotzen da.



Zapia

Kate-dantza batzuetarako erabiltzen den zapia (soka-dantza).



Erronkari jantziaren espartinak

Erronkari Bailaran erabiltzen den jantzi tradizionalaren oinetakoak dira; gaur egun, «Hiru behien zerga» bezalako ospakizunetarako erabiltzen den jantzia.

Kultura-immaterialaren Intereseko Ondasun bezala deklaraturako itun hau, urtero, XIV. mendetik, uztailaren 13an ospatzen da Erronkari Bailaran.